



9. TESTUA. Kondaira

Soldadu korrikalaria

Orain dela 2.500 urte, persiarrek armada handi bat osatu zuten eta Maratoneko lautadarentz abiatu ziren, Atenas eta Grezia osoa menderatzeko asmoz.

Bestalde, Atenas hiriko zaharrak bildu egin ziren:

–Aurre egin behar diegu persiarrei. Bestela, gure zahar eta emakumeek su emango diote gure Atenas ederrari eta ihes egingo dute.

Persia eta Atenasko armadak Maratoneko lautadan lehiatu ziren. Atenastar soldadu bakoitzeko bederatzi persiar zeuden. Hala ere, Atenaskoek persiarrak azpiratzea lortu zuten.

Persiarrak ihes egiten zuten bitartean, Milciades greziar buruzagiak Filipidesi deitu zion:

–Filipides, heu haiz gure korrikalaririk bizkorrena. Abia hadi Atenaserantz gure agure-emakumeek hiriari su emanda ihes egin dezaten baino lehen.

Maratonetik Atenaseraino 43 kilometroko bide dago. Filipidesek, bere zauriak garbitu eta bere armak hartu ondoren, lasterrari eman zion, eskaini zioten zaldiari muzin eginik.

Mendiak igo eta ibaiak zeharkatu behar izan zituen. Bide erdian, bi soldadu persiarren aurka borrokatu beharra suertatu zitzaion. Baina azkenean, neka-neka eginda, Atenas ingurura iristea lortu zuen, bideko oztopo guztiak gainditurik. Hiri barrutik, albo-alboka zetorren giza irudi bat ikusi zuen norbaitek.

–Filipides da! Goazen laguntzera!

Lagunak iristean, Filipides ziplo erori zen, ahapeka zioela:

–Irabazi egin dugu.

Ondoren hil egin zen.

Egungo Olinpiar Jokoetan, bada proba bat Filipidesen balentria gogora dakarrena: Maratoia, hain zuzen ere, 42 kilometro eta 195 metroko lasterketa luze bezain nekagarria.

Greziako kondaira



Aukeratu erantzun zuzena.

- 1 Zer azaltzen da testuan?
 - A. Olinpiar Jokoak nola sortu ziren.
 - B. Atenas inguruko herriak zein diren.
 - C. Antzinako bizimodua nolako azen.
 - D. Antzinako borrokaldi batean zer gertatu zen.

- 2 Zer testu mota da irakurgaia?
 - A. Idazle batek asmatutako ipuina da.
 - B. Film baten laburpena edo iruzkina da.
 - C. Gertakari historiko bat kontatzen duen kondaira da.
 - D. Antzinako pertsonaia ezagun baten biografia da.

- 3 Nork erabaki zuen persiarrei aurre egitea?
 - A. Atenas hiriko emakumeek.
 - B. Atenas hiriko soldaduek.
 - C. Atenas hiriko buruzagi gazte batek.
 - D. Atenas hiriko gizon zaharrek.

- 4 Nor zen greziarren buruzagia?
 - A. Milquinientus.
 - B. Milicias.
 - C. Milagritus.
 - D. Milciades.

- 5 Nor izan ziren irabazleak borroka hartan?
 - A. Inor ere ez.
 - B. Atenastarrak.
 - C. Persiarrak.
 - D. Korrika azkarren egin zutenak.

- 6 Zertara bidali zuen greziarren buruzagiak Filipides Atenasera?
- A. Borroka galdu zutela atenastarrei esatera.
 - B. Borroka irabazi zutela atenastarrei esatera.
 - C. Alde egin zezaten atenastarrei esatera.
 - D. Atenastarren buruzagiari zorionak ematera.
- 7 Zergatik hautatu zuten Filipides horretarako?
- A. Atenastarra zelako.
 - B. Bidea ondo ezagutzen zuelako.
 - C. Buruzagiaren semea zelako.
 - D. Soldadurik azkarrena zelako.
- 8 Zer gertatuko zen atenastarrei abisua eman ezean?
- A. Atenastarrek hiriari su eman eta ihes egingo zuten.
 - B. Atenastarrak Maratonerantz abiatuko ziren.
 - C. Atenastarrak hiriko zaharrak urkatuko zituzten.
 - D. Atenastarrak persiarren mende geratuko ziren.
- 9 Zein da egia?
- A. Filipidesek bere helburua lortu zuen, baina hil egin zen.
 - B. Filipidesez ez zuen oztoporik aurkitu Atenaserako bidean.
 - C. Filipidesek zaldiz egin zuen Atenaserainoko bidea.
 - D. Filipides erraz egin zituen Atenaserainoko 43 kilometroak.
- 10 Zer kirol-probak dakarkigu gogora Filipidesen balentria?
- A. Disko-jaurtiketak.
 - B. Maratoi-lasterketa.
 - C. Pertika-jauzia.
 - D. Xabalina-jaurtiketa.